

BERRIGARA


53. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1992, otsailak 21



**Zuhaitz eguna
larunbatean**



**Zuhaitzen
inausketa
Bide berrin**



**M. Gonzalez
Bastida
omenduko dute**



**Korrikalari
bikainak
antzuolarrak**



OPEL ASTRA BERRIA

**POTENTZIA
ADIMENTSUA**




OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK. HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

OPEL

**TALLERES
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn:
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza

ARGAZKI

18 urtean
zure zerbitzuan

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE

Paqui Larrañaga

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena
hau zen: Harane Erreka.

Paqui Larrañagak idabazi du Urcelay
Harategiko SARIA.

ZORIONAK irabazleari!!

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman
aste honetako galderari!



Urcelay
HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki Arietaleaniz eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Josune Iñarra, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Josune Sanjuan

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifuri eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Legе gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Thelma & Louise filme onenaren oskarra irabaziko ez badu ere, *pelikula* honetako bi emakume protagonistak faborito nagusiak dira aktorea onenari dagokiona eskuratzeko, hain harrera ona izan duen Ridley Scotten filme honetan egindako lan bikainagatik. Astebukaera osoan zita bat duzue beraiekin Nove-dadesen.

LARUNBATA 22

- **Saskibaloia:**
- *Bergara-Beasain* (gazte mutilak), 16.00etan.
- *Bergara-Atletico San Sebastian* (gazte mutilak), 16.00etan.
- **Eskubaloia:**
- *Bergara-Aloña Mendi* (kadete mutilak), 19.00etan.
- *Bergara-Urola* (gazte neskak), 20.00etan.

- **Pelota partiduak:**
- Soroa III-Salbidea/Ansotegi-Retegi IV, Bengoetxea IV-Maiz II/ Alustiza-Iturza eta Retegi III-

Astarloa/Telletxea-Alberdi III, Pelotalekuan 16.30etan.

IGANDEA 23

- **Saskibaloia:**
- *Bergara-Juven Alza* (kadete neskak, lehen maila), 10.15etan.
- *Bergara-Lizardi* (kadete neskak, 2. maila), 10.15etan.
- *Bergara-Begoñako* (emakume seniorrak), 12.15etan.

- **Erakusketa:**
- Marrazkilarien erakusketa Kultur Etxean (azken eguna).

FARMAZIAK



- 22 Puy/Azkoaga (Arrasaten gauetz)
- 23 Puy/Español
- 24 Guallar/Corcuera
- 25 Estella/Irizar
- 26 Mozos/Amezua
- 27 Camacho/Ruiz
- 28 Puy/Azkoaga

ZINEA



Thelma & Louise

- **OSTIRALA:** 22.30.
- **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- **IGANDEA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:** 19.30.

Agente juvenil

- **IGANDEA:** 11.30etan.

Dulce pais

- **OSTEGUNA:** 19.30.

OGIA



Konde

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

ETXAGI
Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

KIZKUR



Heapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Eritzi ezberdinak

Berrigararen asteroko orrietan, Mikel Ugaldek eskeintzen dituen eritziak gogo onez ikusi ditut. Poztuko nintzateke beste gehiagok ere, marko egoki honetara ekarriko balituzke bere gisako kezka eta irtenbideak. Seguru aski, denok hobeto elkar adituko ginateke.

Ez nuen uste, pintada, kartel eta zintzilikako gabe ditugun kale eta hiribideak, zahar itxuraz apaintzen zirenik. Baina, eritziak eritzi direnez gero, astekari honen irakurleak epaitu ditzazten utziko ditut, erantzun gabe.

Bestalde, ezin nezake onartu gazteak Bergaran marjinatuak daudenik, edozein oinbidekoak direla ere. Zorionez, inoiz ez bezelako gaztetzak ari dira lanean beren gustoko esparruetan murgilduta, inongo eragozpenik gabe, era guztietako ikastetxe, kiroltoiki, Kultura Etxe e.a., euren esku ditzuztelarik.

Bergarako udalari eska behar litzatekeena zera da: Goimalako karteltokia, gaurko publizitateak eskatzen dituen kalitate eta neurrikoak, herriko tokirik egokienetan prestatuak. Horrela, ez litzateke aitzakirik etxebizitzetako horma berrizatuak eta lantoki aurre txukunak zikinduteko.

Zeure azken parrafoan ipintzen duzunez, "mobidek adierazten dute gure herriaren gaztetasuna, bizinahia eta aurrera jarraitzeko gazte batzuen

kemena. Ez dezagun arnasa hori itto".

Puntu bera gai dudala, bukatuko dut nire erantzuna. Erretolika zentzuduna zalantza gabe, hemen agertzen duzuna, nik ere, baieztatzen dudana. Istorioek, mendeetan zehar, garbi markatzen dizkigute, hirien aldaketa eta aurrerabide gehienak gazteen bultzadak medio eginak dirala. Asmobizi horiek moztutzea, etorkizunari uko egitea litzateke. Ostera, kontutan izan beharko genuke. mundu hau, gazteak bakarrik ez dutela osatzen. Garrantzitsua da, noiz behin, atzera begiratzea be.

Nere bizitzako goenmailan ezarrita, gaur esan nezake, pertsonaren bizi-prozesua hiru ekinalditan banatzen dela: Gaztaroa, helduen garaia eta zaharizaroa. Denak dituzte beraien zereginak eta eskubideak. Baliozko izren bereziak ere aipa ditzakegu: askatasuna, gizatasuna, begirunea etab..., osasunaz gain, geure aberastasunik goragarriena dugu. Hala ere, bakoitzak uste du geure askatasun muga-marra horietxetatik besteenganako zabalgunea, ez dugula behar bestekoa. Orduan, bultzatu eta zapaldu egiten ditugu aurrekoen eskubideak.

Kontzeptu hauek, garbi ikusi eta gogo onez elkarri leku ematen ez badakigu, geure arteko borrokarik ez dugu faltako.

Agur, Mikel.

Antonio Urzelai



Iñigo Igartua zorionak eta barkatu

Datorren hilaren 29an bergararrok Iñigo Igartua gure herritarra omenduko dugu, Euskadiko eta Espainiako Ziklo-Kross txapelketetan irabazle haundi izan dena. Merezimerezia duen omenaldi honek Bergarak duen kirolaririk onenetakoaren lana aitortzeko balio izango du baina izan beharko luke guztiok batera "mea culpa" esateko ere.

"Mea culpa", Iñigo Igartuak bere garaietan ez zuelako herrian bere asmoa aurrera eramateko beharrezko laguntzarik lortu eta orain, txapeldun denean, gogoratzen garelako berarekin.

"Mea culpa", ez Bergarako herriak, ez erakundeek, ez prentsa lokalak, ez dutelako jakin merezi zuen neurrian baloratzen.

"Mea culpa", egingo zaion aitortpena lehenago, bapatekotasun haundia goz, egin geniezaiokeelako, eta ez orain, ia derrigorrean eta eskeinutako arretaz erdi lotsaturik egin behar diogun une honetan.

Kontxi Irizar

(Eusko Alkartasunako zinegotzia)

Tiira ba!



□ Lorazaintza

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak otsailaren 26tik ekainaren 2ra bitartean Kultur Etxean emango den *etxeko-lorazaintza ikastaroa* antolatu du. Izena emateko 762440 telefono zenbakira edota zerbitzu honek anbulategian duen bulegora jo dezakezue goizeko 10etatik 1etara.

□ Karnabalak

Karnabaletako jaiak direla eta, *Jubilatuaren Egoitzak* martxoaren 3an egingo den bazkaria antolatu du. Plazak mugatuak dira eta izena emateko epea asteartean, hilak 25, bukatzen da. Bazkariaren prezioa 1.500 pezetakoa da. Bazkal ostean, berriz, dantzaldia eta ohizko mozzorro jantzien lehiaketa izango da jubilatueta.

Larunbat goizean Zuhaitz eguna ospatuko da Elosu-gainean

Victoriano Gallastegi alkateak eta *Joseba Aizpurua* Udaleko Nekazal Peritoak larunbatean, hilak 22, ospatuko den *Zuhaitz eguna* 92aren aurkezpena egin zuten asteazkenean. Larunbatean Bergarako ikastola eta beste elkarte batzutako 10-11 urte bitarteko ume mordoxka batek Elosu gainean 200 bat zuhaitz (haritz, pago, urki, etab.) landatuko dituzte.

Jai ekolojikoak

Ingurugiroa babestea az gain, naturguneen balio ekolojiko zaintzeko aurrerapasua eman nahi da jai ekolojiko honekin. Udalak, bere aldetik, Behoko Estaziñotik goizeko 10 terdietan aterako diren autobusak jarriko ditu joan nahi duten guzti-




entzat, landaketaren ondoren ogibitartekoak eta edariak banatuko dira bildutakoan artean.

Iñaki Txueka Nekazaritza eta Naturgune Saileko diputaua ere bertan izango da, Udalak Gorla inguruan atsedenalditarako toki egiteko martxan jarri duen pro-

iektoa bultzatzeko. Gogoratu 20 milioi inguruko aurrekontuarekin, kantina berriztu, iturriak jarri edota zuhaitzak landatzeko lanak egin nahi dituela Udalak. Berez, larunbatean parke horren eraikuntzarako lehen urratsak emango dira.


Txapa Irratia martxan

Denbora luzez isilik egon ondoren, joan den astean hasitako emisioekin, *Txapa Irratiak* etapa berri bati hasiera eman zion. Bergarako 20 lagun inguruk bultzaturik, Txapan (99.1 FM), asteazkenetik igandera bitartean, musika, magazina, ekologia edota mitoei eskeinitako irrati saioak entzun daitezke. Oraingoz programazio guztia arratsalde eta iluntzean eskeintzen denez, programazioa osatzeko edota irrati formula berezi hau behingoz finkatzeko bestelako laguntzarik eman nahi dutenei Zabalotegin duten lokaletik pasatzeko eskatzen zaie.



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99



JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubleta 46
Bergara

❑ **Lurraldea**

Lurraldeak Akordio Ekologikoaren alde lemapean larunbaterako, hilak 22, Iruñean konbokatu duen manifestaldira joateko Bergaratik kotxe karabana irtengo da frontoitik arratsaldeko 3 t'erdietan.

❑ **Ipuinak**

Udal Euskara Zerbitzuak VI. Literatur Lehiaketan saritutako ipuinak biltzen dituen liburua argitaratu du. Bestalde, zerbitzu honek kaleratutako egutegiak jaso nahi izanez gero, Kultur Etxeko liburutegian jaso ditzakezue.

❑ **Finalera**

Datorren ostiralean Donostian jokatu den binakako pelota txapelketaren finalera Zezeaga animatzera joan nahi dutenek *Infernukua* tabernan izena eman dezakete. Autobusa eta sarrerak 3.000 pezeta balio du.



Inausketa Bide-Berrin

Udaleko *Ingurugiro Batordeak* Bide-Berriko Indi-gaztainondoan inausketa lanak burutu ditu aste honetan. Adar printzipala mantenduz, Udalak kontrataturiko *Abadinoko Parques y Jardines* enpresak "ustelduta edota usteltzeko bidean ziren adarrak, jausteko arriskuan zirenak kendu ditu" Joseba Aizpurua Udaleko Nekazal Peritoaren esanetan. Horrez gain, inausketa egiterakoan zuhaitzetan sortzen diren epaietan pasta berezi bat txertatu zaie, babes gisa, ebaketaren to-

kian sor daitezkeen gaitzak ebitatzeko.

Lan hauen aurrekontua 550.000 pezetakoa izan da. Joseba Aizpurua azaldu zigunez, "zuhaitzei ondo etorriko zaie podaketa, zuhaitzak indartu eta datorren urtetik aurrera adarrak indar handiagoz haziko baitira". Lanak hasi baino lehen Udala talde ekologistekin elkar ulertze batera heldu bazen ere, Eguzkik eta Mendia Bizirik *"adar igarrak ez ezik, inausketa berdintzeko, ondo zeuden batzuk ere moztu direla"* salatu dute.

❑ **Kartel lehiaketa**

Aritzeta Abesbatzak Gipuzkoako IV. *Haurren Abesbatza Eguna* antolatuko du apirilaren 26an. Hori dela eta, Aritzetak kartel lehiaketa konbokatu du herriko O.H.O.ko 2. zikloko ikasleentzat. Ikastetxe bakoitzak 10 kartel aukeratu eta martxoaren 7a baino lehen Kultur Etxean aurkeztu beharko ditu. Aurkeztutako lan guztiek (480x640 mm.) egileen gustoko teknika eta materialekin egin ahal izango dira.

❑ **Ospakizuna**

Datorren ostegunean, hilak 27, Erreteriko *Andra Mari Abesbatzaren* 25. urteurrenaren ospakizuna izango da udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko zazpi t'erdietan, *Jose Luis Ansorena* abesbatzaren zuzendariak emango duen hitzaldi-solasaldiarekin.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak


Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

SANTOS IRRATI - TB




TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako altzariak
Argiztapenak

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA



Lan beharren azterketa

Udaleko *Enplegu eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak* enpresa eta zerbitzu mailan dauden beharrak jakiteko azterketa soziologikoa egingo dela jakin arazi zuen astelehenean. Albaro Esparza batzorde buruak, Marije Unamuno teknikariak eta azterketa zuzenduko duen Mari Karmen Elejaga soziologoak azaldu zutenez, azterketaren helburua enpresen beharrak aztertu eta horren arabera Udalak, Lanbide Hastapena programaren barruan, langabetuei zuzenduriko

ikastaro egokienak antolatzea litzateke. Era horretan, langabetu horiek, lana bilatzerako orduan kualifikazio hobea eduki dezaten lortu nahi da, Bergaran diren langabetuen gehiengoak ez baitu inolako prestakuntzarik. INEMen izena emanda duten 1271 lagunetatik, lan egiteko prest daudenak, langabetu errealek, 727 lirateke (biztanlegoaren % 12a); era berean, langabetuen % 31k eskola zertifikatua du eta % 24ak berriz, eskola graduatua lortu du.

Txinpartak

✓ **Pol-Poleko Argazki Sailak** antolatuz, astelehenean Kultur Etxean hasi zen argazki ikastaroan 40 bat lagun ari dira parte hartzen. Ikastaroa datorren ostiralerarte, hilak 28, luzatuko da.

✓ **UNEDeko Filolojia Departamentuak** hizkuntza eta literatur arloetan irakaskuntzan dihardutenentzat *Testua: ulerkuntza eta sormena* ikastaroa antolatu du. Izena emateko epea otsailaren 18tik martxoaren 11ra bitartean egongo da zabalik.

✓ **dBase III Plus**eko 12 orduko ikastaroa antolatu du berriz UNEDeko Geografia eta Historia Departamentuak. Matrikula epea martxoaren 18an itxiko da.

✓ **Eli Galdos** Gipuzkoako Diputatu Nagusiak Elgetara egin zuen bisitaldian, besteak beste, Elgeta eta Kanpazar arteko bidea, Elgetako barriantea, kiroldegiaren 2. aldia edota auditorimerako laguntzak aztertu zituen alkaterarekin.

✓ **Herriko 30 bat irakasle** ari dira parte hartzen Kultur Etxean Euskara Batzordeak antolatu eta Marga Iturriak ematen duen soziolinguistika ikastaroan.

✓ **Aranzadi Ikastolaren** Asanblada Orokorra egin zen ostegunean, txosten akademiko eta ekonomikoak aurkeztu, presupuestoa onartu eta gurasoen batzarreko hiru kide berri aukeratzeko.

ORTZI
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68


Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ERROTA - GAIN

Aluminioak



• **Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.**

• **Galdaragintza orokorrean**

Labegaraieta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa; 76 32 40
BERGARA

San Blas

Ohiturak eta galdara haundia

San Blaseko ermitak baditu beste bi irudi: Santa Isabel eta San Blas bera. Eta Santu horiek bere izena eman diete bai eleizari eta bai auzoari. San Blasengana katarruak eta eztarriko miñak sendatzeko asmoarekin joaten zan, kandelak emanaz. Inoiz batzuek sagarrak ipiñi izan zituzten Santuaren eskuetan, eta usteldu arte horrela utzi behar zirala esan omen zuten. Bere egunean jende asko, "Aste Santuan Santamañara bezela", joaten omen zan ermitara; "San Blas opilla" bedeinkatu eta gero erromeria izaten zan. Oraindik bedeinkatzen dira opillak bere egunian, eta kandelak

ugari eramaten eta pizten dituzte.

San Blasen ere egiten omen zan "karidadea", eta haragia eta salda ematen omen ziran Osintxun bezala. Dena dela, zaharrenak ere ez dute horrelako modurik ezagutu. Lizarralde jaunak, liburu batean dioenez, zopa eta esnea ematen omen ziran, eta hau dena 1.571an egindako 120 pitxarreko galdara haundi batean prestatuta; lehenago ere bazan beste galdara "haundi eta balio haundiko" bat. Hau dena San Blaseko kofradiaren eskuetan egoten zan; 1.658ko inbentariuan irakurri leike: "sei ola, Eleizan kofradiako mahaiak egiteko erabiltzen ziranak".



Lizarralde jaunak liburu batean dioenez, San Blasen zopa eta esnea ematen omen ziren 1.571an egindako 120 pitxarreko galdara haundi batean prestatuta.

Bergaran modu bateko edo besteko kofradiak izandutako ermitak hauek dira: San Blas, San Martzial, San Jose eta Osintxuko Emeterio eta Zeledonio. Azkeneko

honi buruz XVIII garren gizaldiko erdi aldean esaten zan: "orain urte asko sortutako kofradia".

Imanol Sorondo

X A L O

✓ Izozkidenda, kafetegia eta gozotegia.

✓ Gosariak eta askariak.

Simon Arrieta 3, BERGARA

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

LETE TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.

Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE

BERGARA Tfnoa: 76 12 24

IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Miguel Gonzalez Bastida:

"Omenaldiak asko pozten nau egindako lanaren errekonozimendua delako"

Miguel Gonzalez Bastida, 71 urte, ia bizitza guztia musikari emana. Bergarako Udal Musika Bandako zuzendari 34 urte izan ondoren 1.986an jubilatatu zen. 15 urte eman zituen Bergarako Orfeoiko zuzendari eta Santa Marinako koruko organista 50. Urrezko eztaiak ospatzeko igandean omenduko du Santa marinako parrokiak.



Alfredo semea nere ordeaz jarri zen bezalaxe.

- Hainbeste urte musika munduan jardun ondoren eta Santa Marinan organista 50 urte egon ondoren, ondo merezitako omenaldia...

- Askok pozten nau, egindako lanaren errekonozimendua delako. Parrokiako koroak oso inportanteak dira herriarentzako, horiek gabe Meza Nagusiak, hileta elizkizunak e.a.k askoz tristeagoak izango lirake eta. 1.941ean utzi zidan aita Santa Marinako organoaren ardura eta gustora aritu naiz joan den urtera arte. Organoarekin asko ikasten da, inprobisatzeko aukera handiak ematen dituen instrumentua delako.

- Udal Musika bandako zuzendari, Orfeoiko zuzendari, Santa Marinako organista, zein lan izan zaizu atsegina?

- Guztiak egin ditut gustora, baina gehien bete nauena Udal Musika Bandan egindakoa da, nere ogibidea horixe izan delako.

- Noiz konposatu zenuen lehenengo obra?

- Hogei urte izango nituen, Melillatik, soldadutza egitetik, etorri berri eta lehen lana konposatu nuenean. Melillan musika orkestatxo bat osatu nuen eta igandero-igandero jotzen genuen. Bergarara heldu eta "Maelzelen Metro-nomoa" konposatu nuen Musika Bandarako.

- Eta sekula idatzi duzun obrarik alpagarriena?

- 1.976n San Pedron estreinatu nuen "Estabat mater" duda barik. Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia neure zuzendaritzapean izan nituen. Bergaran estreinatu eta gero, Bilbon, Madrilen eta beste zenbait tokitan eman genuen. San Pedron eskeintzen ziren kontzertuak maila handikoak ziren: Odon Alonso, Jean Martinon, Jesus Aranbarri, Vicente Espiteri, Jordá Gallastegi... zuzendari ospetsuak etortzen ziren; Orfeoian, bestalde, orain ez dauden ahotsak genituen...

- Orain ez da horrelakorik antolatzen baina Gabonetako kontzertuak, esaterako, arrakasta handia izan du azken urteetan...

- Izugarria, eta bide onetik doaz kanpora irtetzen hasi dira eta. Bergarar moduan, eta Alfredo Gonzalezen aita izanda, harro nago herrian daukagun musika taldeengatik. Musika Eskola lan ederra egiten ari da gazteekin.

- Miguel, zein da gustokoen duzun konpositorea?


- Askok ditut gustoko: Wagner, Beethoven, Mozart..., baina bat aukeratzekotan, Wagner erromantikorekin geratzen naiz, bandan interpretatzeko, besteak baino hobe egokitzen delako.

Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



Victoriano Gallastegi:

"Autobidea eta aurrekontuak ezin daitezke nahastu"

- Diputazioko gobernuak aurkeztutako presupuestoak atzera bota dituzte EA-EUE eta HBk...

- Bai, eta presupuestoak aurrera eramateko oposizioarekin negoziatzen ari gara. Legealdi honetan gertatu da Diputazioan minorian gobernatzen ari garela, baina hori aurrekoan ere gertatu zen. Lehen HBkoak ez ziren Batzarretara agertzen eta orain, berriz, bai. HBren presentzia Batzarretan begi onez ikusten dut, hortarako daudelako instituzioak. Gertatzen dena da EA eta EUEk ez dituztela presupuestoak onartzen, ez txarrak direlako beste arrazoi batzuegatik baizik. Orain, irtenbide bat topatzeko, guztiekin negoziatu beharko da.

Oposizioak HBrekin harremanak izan dituzten moduan guk ere eduki ditzakegu, oposizioaren aldetik ulertzen ez ditudan kritikak entzun arren.

- EA zentsura mozioa aurkezteko prest agertu da. Horrela izango balitz, EA, EUE eta HB bat egin eta hirurorik artean gobernatu ahal izango lukete. Nola ikusten duzu hori?

- Posibilitate hori euren eskuetan dago, baina ez dut uste horrela gertatuko denik.

- Zer eskeini diezaioke Gobernuak oposizioari presupuestoak onartu ditzan?

- Diputazioa partidu guztiekin harremanetan jarri da

Gipuzkoako direla

Victoriano Gallastegi eta L...

Gipuzkoako aurrekontuak direla eta eztabaida bizi dugu eta oposizioko HB, EA eta EUE partiduak. Jaki gero gobernuak aurkeztutako presupuestoak atzera bota dituzte ateratzeko negoziatzen buru-belarri dauden orain, B bergarrek bildu gara: jeltzaleen bozeramalea Victor Herri Batasunako bozeramale, Jose Luis Elkoro... Eta euren eritzia...

eta oposizioak, bere aldetik, alternatibak aurkeztu beharko lituzke, bai Diputatu Nagusiari eta baita sail ezberdinetako diputatuei ere. Behin alternatibak mahai gainean izanda gero, diputazioak emendatzen eztabaidatu eta negoziatuko ditu.

- Eli Galdosek HBrekin akordioak lortu daitezkeela eta EA eta EUErekin bat etortzea zailago ikusten duela esan du. Zer deritzozu horri?

- Aurrekontu batzuk baten gustokoak ez direnean, alternatibak aurkeztu behar dira. Ez txarrak direla eta atzera bota; negoziatu egin behar da. Eta itxura denez, HBk jarrera zabalagoa erakutsi du aurrekontuen auziari irtenbidea emateko.

- HBrekiko negoziaketetan zer protagonismo dauka autobideak?

- Bi gauza ezberdinak dira aurrekontuak eta autobidea. Autobidearen obrak presupuestoaren barruan daude. Aurtengo presupuestoak onartu behar dira lehenengo,

eta autobidearen auzia ezin daiteke presupuestoekin nahastu.

- Orain arte HBrekin inolako harremanik ez izateko jokabidea jarraitu da. Orain, oster, negoziaketak eurekin izan behar direla dio Diputatu Nagusiak. Zergatik hori?

- HBri, duen indarra botuek eman diote eta batzarkide horiek, hauteskundeetan lortutako ordezkari horiek, instituzioetara joan beharko liratekeela uste dut. HB Diputazioko aurrekontuak eztabaidatzen ari da orain eta jarrera hori begi onez ikusten dut. Nere ustez ona da HBrekin instituzioetan edozein gaiaren inguruan eztabaidatzea.

- Ze irtenbide ikusten diozu auziari?

- Guztiekin negoziatzen ari garenez edozerr gauza gerta daiteke. Neri, partidu demokratikoekin, hau da, EA eta EUErekin legislatura paktua lortzea gustatuko litzaidake. Horrek ez du esan nahi HB baztertzearen alde nagoenik.










Arrasate 79 42 22 Artxabaleta

ta Luis Elkoro batzarkideekin

a biza ditugu Diputazioko gobernu koalizioa (EAJ-PSOE) . Jakinez, jeltzaleak eta sozialistak osatzen duten era berritu oposizioak. Aurtengo presupuestoak aurrera en honen, Batzar Nagusietan aurre-aurrean dauden bi alea Victoriano Gallastegi Bergarako alkatearekin eta ororen. Eta Gipuzkoako aurrekontuen auziaren inguruan eritaso ditugu .



Jose Luis Elkoro:

"Autobidearen auzia gurekin konpondu dezake gobernuak"

- HBk zergatik ez ditu aurrekontuak onartzen?

- Guk egingo genituzkenak zeharo ezberdinak izango liritekeelako eta gobernuak erakutsi duen jarrera prepotenteagatik: presupuestoak gu kontutan hartu gabe egin dituztelako.

- Joan den legealdian EA eta EEK, minorian izan arren, gobernatu ahal izan zuten, zuek Batzarretara ez zinetelako agertu. Orain, jarrera aldatu duzue. Zergatik?

- Uztailen, Diputazio berria osatu zenean, Batzarretan izan ginen eta argi utzi genuen legealdi honetan gure presentzia haundiagoa izango zela. Harrezkero, hori izan da gure jarrera, iraunkorretara zein plenoetara joan izan gara.

- Eli Galdosek esan du zuekin akordio batera heldzeko posibilitate haundia-

goak ikusten dituela EA eta EUErekin baino. Zer deritzozu horri?

- Hori bere eritzia da, baina guk ez daukagu posizio finko bat. Hasieran EA eta EUErekin elkarrizketak izan genituen eta presupuestoak atzera botatzean bat egin dugu. Orain EAJrekin hartu-emanetan gaude, eskeintza bat egin diogu gobernuari eta erantzunaren zain gaude.

- Eta zer eskeini beharko lioke gobernuak HBri bere jarrera aldatzeko?

- Gure eskaerak aurkeztu dizkiogu Diputatu Nagusiari eta gainbegirada bat emanaz, gutxigorabehera hauek dira: gastu arruntak deitzen direnak, hau da, barruko pertsonalarena, publizitate instituzionalarena e.a.k, murriztea eskatu diogu, gehiegi igo direla uste dugulako; udal txikiei diru gehiago ematea; euskerari da-

gokionez, Euskaldunon Egunkariari eta beste euskarazko publikazioei ere, dirulaguntzak ematea; euskarenen normalizaziorako norma foral bat egitea; 1.go, 2, eta 3. sektoreentzako laguntza ekonomikoak gehitzea; kultura arloan murrizketa gogorra egon dela uste dugu eta ez gaude ados...; hirigintza, garraioak eta beste hainbat gaitan 100 emendakin inguru egin ditugu...

- EAk zentsura mozioa aurkeztuko balu, posible izango litzateke EA, HB eta EUEk osatutako gobernuak?

- Gertatu daitekeen arren ez dut posibilitate hori samur ikusten. Hori gerta ez dadin, jeltzaleek bai gurekin zein EA edota EUErekin paktatuko dutela uste dut.

- Hori gertatuko balitz HB prest legoke Diputazioa lideratzeko?

- Ez zaigu burutik pasatu

ere egin.

- Diputazioko gobernuarekin negoziaketetan ze protagonismo du autobideak?

- Oso gai inportantea da edozein ikuspegitatik begiratu, bai politikoa, ekonomikoa zein soziala. Uste dut nahikoa arrazoi daudela auzi horri irtenbidea bilatzeko. Dena dela ez da mahai gainean jarri dugun puntu bakarra.

- Eta gai honen inguruan zein da HBren posizioa?

- Lurraldearekin akordio batetara helduko balira HBk onartuko egingo luke.

- Nola konpondu daiteke auzia?

- Gobernuari autobidearen auzia konpontzea komeni zaio eta gurekin paktatuz gero, hori lortu dezake; EA eta EUE, bestalde, ez ditut arazoa konpontzearen alde ikusten.

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LAZKANO

OINETAKOAK

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



ETXE-
-AUNDI

Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS
oto istema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bode tako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Zer deritzozu Txapa Irratia berriz emititzen hasteari?



Joseba Otaño
23 urte, langilea

Ondo dagoela uste dut. Lehen bezala badago merezi du.



Lourdes Jauregi
33 urte, langilea

Ez dut inoiz entzun, baina hemendik aurrera, ondo egonez gero, entzungo dut.



Elisabeth Ugarte
27 urte, langilea

Herrian irrati bat egotea begi onez ikusten dut. Interesgarria izan daiteke gazteentzat.



Martin Moreno
29 urte, langilea

Ondo. Lehen entzuten nuen eta gauza interesgarriak ematen zituzten.

Deba bailaran oso entzuna den

IRRATI BATEK MERKATAL AGENTEA BEHAR DU

BALDINTZAK: euskalduna, Bergara edo Arrasatekoa, 25-35 urtekoa eta salmenta arloan (aseguru, liburu, publizitatea,...) gutxienez bi urteko esperientziaduna.

Baldintza ekonomikoak hautagaiaren esperientzia eta balioaren arabera.

Interesatuak idatz, kurrikuluma erantsiz, postakaxa honetara: 1643 DONOSTIA



Torturaren izua

Hizpidea igande honetako Euskaldunon Egunkariak eman dit. Bigarren orrialdean Sarasua, bertsolari onharrotxuak "profesionaltasunak" titulupean bi langile parakatzen ditu: ohizko torturatzaile izenik gabekoa eta Bikuña, gure herrikide kazetaria. Artikulu gogorra benetan, egia bera izan daitekeen adinakoa.

Kontua da, herri honetako langile edo soldatapekoen diruez ordaindutako Barne Kontseilaritza eta ETB Espainiako botereekin zeharo bat eginda daudela, Corcuera eta Telediararioaren anaiorde moduan jokatzuz hurrenez hurren.

ETBkoek, honez gero ahaztutako urriko "iraultzaren" ondoren, Gaur Eguna ordu laudenera murriztu dute, Teleberria "aberatsago" dator eta aurreko iraupen berberaz. Eraitza garbia da: euskarak, bere etxe nagusi horretan ere, erdararen morroi segitzen du, eta martxa honetan huskeriatzat jo beharko ditugu ABCkoa zen Alfredo Semprún-en behialako ateraldiak, Teleberriak eskaintzen dizkigun loreen aldean. Gure egunkariaren orrialde bereko hemerrotekan Mikel Atxagak dioskunez "torturatzaile horiek zigortzen ez badira, mendekuzko eta bortxazko gizarte batean gaude". Ez dakit adarjoka ari den ala serio, "Amerika berriak deskubritzen" alegia. Izan ere, torturaren helburu nagusia herria izutzea da, geroko "justiziaren" eta "informabideen" gezurrez lortzen baitute.

Iñaki Mozos



Eskatu bertako haragia

Jakinekkoa da kanpotik datorren haragirik gehiena, baitapat Kataluña eta Aragoitik datorrena, granja industrialetan gizendua dela, Clenbuterol edo antzeko hormonak erabiltzea oso normaltzat dutelarik. Bestela, ezingo lukete halako prezio merkeetan saldu, hemengo ganaduzaleei egiten dien kompetentzia desleala eginaz.

Hala ere, Euskal Herriko ganaderitza mota eta produktio teknikak ikusita, garbi esan daiteke gure ganadu haragia kalitatezkoa dela eta ez duela inolako hormonarik erabiltzen. Beraz, lasai jan dezakegu bertako haragia, baina baita jarrera indartsuagoa hartu behar dugu fraude honekin zerikusia duten guztien aurrean presioa egin eta halakoak ebitatzeko.

Honen harian eskaera batzuk egingo nituzke: Harakin eta maioristei, baloratu dezatela gehiago bertako haragia, orain egiten ari diren diruak berehala gutxitu bait daitezke kontsumitzaileak atzera egiten badu. Kontsumitzaileei, eskatu dezatela kalitatezkoa, denon osasunaren alde, merke erostean aurreratutakoak botiketean joango baitira. Albaiteroei, egoki asesoratu ditzala ganaduzaleak, pentsu saltzaile eta banatzaileen segmentua eginaz. Gobernuari, gure haragia bereiztu eta promozionatzeko bideak ireki ditzala, kontsumitzaileei informazio gehiago emanaz. Hiltegien jostoreei, saiatu daitezela bertako haragiaren aldeko inizatibak bultzatzen. Ganaduzaleok berriz, segi ikasten eta kalitatea hobetzen hormonarik gabe, noski.

Maite Aristegi

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

LARREA

TABERNA

**Kale Barren 17
ANTZUOLA**

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

**San Antonio 3 Ibargaral 2
Tfnoa: 76 22 93 Tfnoa: 76 53 22**

**ONENA
TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA



ANDIVIZU

ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA

Azulejo erakusketa • Onduline
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA


Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

□ Hori zortea!

Gabonetan antolatu genuen Kirol Sariak lehiaketan saritutakoen berri izan dugu orain gutxi; jakin dugunez, irakurleen saria irabazi zuen **Andoni Rodriguez Ane Kapanaga** bere lagunarekin Bartzelona *olinpikora* joan zitzaigun astebukaera primeran pasatzera. **Amala Aranzabal** eta **Iosu Bereziartua** berriz, Himalayako espedizio gogorak ahaztu eta Parisen izan ziren, argazki-hau bidali digutelarik. Gehiegi antzematen ez bada ere, han atzean, Sena ibaia jarraituz, Eiffel Torrea omen dago. Ez pentsa argazkilariak gu ginenik, eh? Nahi bai!



Iosu eta Amaia Parisen, Sena ibaia atzean dutela.

□ Bertsotan

Larunbatean, ohiturari jarraituz, Apotzagako Auzo-Etxe elkartean bailarako hainbat bertsolarik urteroko bertso jaia ospatu zuten. Aurten gainera bertsolaritzaren alde hainbeste lan egin duen **Andres Gabilondo** elusuarri omenaldia eskeini zioten. Ondo afaldu ondoren, postre gisa, nola ez,



bertsoak ez ziren falta izan. Eta Andres Gabilondok bere maisutasuna argi utzi zien berriz ere bere ikasle izandakoei. Beteranoaren jakintasuna...



LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29



□ **Artistak**

Ikusten denez, edozein aitzakik balio du afaritxo bat egiteko. Argazkiko hauek, esaterako, **Fra Angelico** artisten patroiairen omenezko afaria zelebratzen dute urtero **Umore Ona** Elkartean. Han bildu ziren asteazkenean hainbat margolari, musiko, tallista... Mahai gainean somatzen den afari eder hori prestatu zuen sukaldaria ere artisten gremiora pasartuko ote?


□ **Lagunartean**

Impreci enpresako jubilatua eta jubilatzeke direnak bazkaltzeko bildu ziren **Oilagorria** Elkartean joan den larunbatean. Guztira, 25 lagun inguru bildu ziren babajana honetarako eta imajinatzen dugu, lan kontuez eta etorkizunerako planez hitzegiteaz gain, juergatxo bat ere egingo zutela ondoren.




Zertan dihardute ba?

ROMAN GARITANO



Igandean izandako asanbladan, **Umore Ona** Elkarteko bazkideek 55 urteko bergarar hau aukeratu zuten urtebeterako elkarteko presidente. Romanek Rafael Amasorrain ordezkatzan du.

MAITE UNANUE



Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan ikasketak burutu dituen 21 urteko gazte bergarar hau Kultur Etxeko Bideo gelaren arduraduna izango da, martxorarte ETBn lanean ari den Nerea Ibaberen partez.

JUBILATUEN TABERNA

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

JUAN MARI IRIZAR

Hagin klinika, aho sendagilea.

Helbide berria hau da:

Boni Laskurain 4, behea. Tfnoa 76 56 57

Umore giroan

Txomin Amasor-
rainen Ixkirimiriak
amaitu eta Pedro
Zelaiaren kontuekin
barre egiteko
aukera izango dugu
hemendik aurrera.
Bata zeln
bestearekin, beti
umore giroan...

Tornu aurrian illun

Astelen baten, le-
nengo orduan, -seitxer-
dietan- etzan Juan Mar-
zelo biarrera. Ez baiña
Balentin Orbea ugezaba
kontuan jausi barik. Bi-
garren orduan, -zortzire-
tatik zortziterditarakua-
armosatzeko denbora
izaten zan. Agertu da bi-
garren orduan Katu Balt-
za. Andik laster urreratu
jako ugezaga:

- Marzelo, gaur goizi-
an illun-illun jeuan ire
tornu aurrian...

Eta Katu Baltzak, be-
gixak jaso barik, biarrari
jarraituaz:

-Trumoia joko zeban
ta...

* * *

Organu zarrakin be konforme

Eibarko parrokixan or-
ganu barrixa ekartzeko
asmotan zebitzen. Eta di-
rua batzeko, Mariaren
alabak, Kongregaziñoku-
ak, etxerik-etxe diru ba-
tzen asi ziran orretarako.
Eldu ziran Katu Baltzaren
etxera be. Zabaldu detse
atia Marzelon arrebiak:

- Organu barrixantzako
zetozen esan zetsenian, -
Esaixone, gu organu za-
rrakin be konforme giñala,
elixako organuakin aspal-
dixan aztuta gaozanala.

* * *

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Bergararren pertsona izenak

Ez dut hemen jardungo
norberaren izenak duen
inportantzia kultural eta
psikologikoaz eta ezta izan
ohi dituen inplikazio erlijio-
so edo eta politikoez ere.
Azken mendeetan izenek
izan duten eboluzioaz jar-
dungo dut.


Erdiarotik XVII mendera
arte pertsona bat hiru ele-
menturen bidez izendatzen
zen: izena (Sancho edo
Martin, adibidez), patroni-
mikoa (Fernandez, Iba-
ñez...) eta lekua adierazten
zuen (Olarra, Zarate...).
Arabian mantendu da baka-
rrik sistema zaharra, beste-
etan patronimikoak desa-
gertu direlarik.

Garai hartan behin eta
berriz errepikatzen ziren
izen gutxi batzuk erabiltzen
ziren, identifikazioa erraza
bait zen hiru elementuen
konbinaketekin. Gero, XVII
eta XVIII mendean popula-

zioa asko haunditu zen eta
abizen-berdinak erabili ohi
baziren ere, izenak asko
ugaritu ziren, santoral
osotik hartuak; horrela le-
hengo izenen nagusitasu-
na ebitatu egin zen eta
konposaketa sistema be-
rriak ere azaldu ziren (Pe-
dro Bernago, Juan Mi-
gel...).

Horrela, Bergaran XIX
mendearen lau aldiz izen
gehiago erabiltzen zen
XVI mendean baino. Men-
de horren hasieran bizila-
gun erdiak Juan edo Pedro
du izena eta % 35ak Mar-
tin, Migel, Domingo edo
Andres. Sei izen hauek
ziren popularrenak XVII
mendearen ere, baina beste
batzuekin konpetentzian:
Antonio eta Francisco le-
henengo eta Jose eta Ig-
nacio geroago.

Juantxo Madariaga



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

Taberna kafetegia

**EHIZTARIAK
LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.

Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

Antzuolarrak bikain Euskadiko Txapelketan

Emaitza onak lortu dituzte *Antzuolako Kirol Elkarte*ko korrikalariak jokatu berri diren Euskadiko Kross eta pista estaliko junior txapelketetan.

Batetik, Urola taldearekin korritzen duen *Antonio Merino* antzuolarrak 5. postua lortu zuen igandean, Bilboko Etxebarria parkean Euskadiko Kross Txapelketaren 11 Km.ak korrituz gero. Merinok, 38 minutu eta 48 segundurekin, minutu bat eta 22 segundu besterik ez zuen galdurabazle izan zen Martin

Fiz arabarrarekiko. Kadeteen kategorian berriz, *Beñat Ayastuik* Blanco bigarrenari 10 segunduko aldea ateraz garaipena lortu zuen eta, beraz, Euskadiko txapeldun berria dugu.

Bestalde, Euskadiko pista esta-



Merino, Juan Mari Garinen atzetik iaz.


liko txapelketan ere marka bikainak lortu dituzte antzuolarrak. Aipagarri dira *Ibon Iturbek* luzeera jauzian saltaturiko 6.10 metroak eta baita ere *Amaia Zabaletak* 200m.ko lasterketan, 27.8 segundurekin, eginiko marka.

Txinpartak

✓ *Udal Kirol Zerbitzuak II. Binakako Pala Txapelketa* antolatatu du. 1.975.ean baino lehenago jaiotako guztiek parte har dezakete. Txapelketa martxoaren 29an hasiko da eta izena emateko epea martxoaren 25ra arte izango da zabalik.

✓ Datorren asteartean, hilak 25, *Bergara K.E.ko pelota sailak* Arrasateren aurkako neurketa jokatu du arratsaldeko 7.30etan pelotalekuan, Deba Garaiko txapelketaren barne.

✓ *Iñigo Igartuak* parte hartu du larunbatean *Patxi Alonso* ETB 2an zuzentzen duen *Estrellas en juego* lehiaketan. Horrez gain, ohorezko sarea egingo du igandean 16.15etan *Bergara* futbol taldeak *Gure Txokoaren* aurka jokatu duen partiduan.



Igeriketaren promesak

Igeri Elkarteak emaitza onak lortzen jarraitzen du parte hartzen duen probetan. Leioan jokaturako Euskadiko infantil txapelketan, Juan de Borja 100 metro tximeletan eta 200 estilotan txapeldun eta 100 m. bizkar eran bigarren izan genuen; Jon Jauregi bigarren izan zen 400 estilotan eta Aritz Garciak ere zilarra eskuratu zuen 100 libretan, Gorka Gonzalezek 3. postua lortu zuen 100 bular igeriketan eta, horrez gain, taldeka bergararrak 5.ak izan genituen. Bestalde, Azpeitian jokaturako junior txapelketan Unai Alberdi lehena izan zen 100 bizkar eran eta bigarren estilo bereko 200eko proban. Kepa Irizar era berean bigarren izan zen 100 bular igeriketan eta 3. 200 bizkar eran.

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA



FOTOKOPIAK - ENKUADERNAZIOAK

Bildumagarriak-Aldizkariak-Enpresa liburuak

LIBURUDENDA

Prentsa - Eskola material - Opariak

San Lorentzo 23, Tfnoa: 76 58 28



San Antonio txikietan aizkolari apostua

Gaur egun behintzat herri kirolek ez dute indar haundirik Bergaran nahiz eta Euskadiko Federazioko presidentea bergararra izan. Ez dugu berririk lehenago ere gure herrian horretan nabarmendu den izenik egon denik. Hala ere, zaletasunik ez da falta izan eta herriko jaietan beti izan dira herri kirol jaialdiak.

Honako argazki hau 1.929ko San Antonio Txiki jaietan San Antonio Plazan ateratakoa da eta bertan agertzen direnak honako hauek dira.

Ezkerretik eskumara: Paulino Larrañaga (Canalejas), Marino Manso, Manuel Gantxegi (Etxe txiki), Pedro Agirrebeña, Txopua, Domingo Agirrebeña, Antonio Gonzalez eta Valentin Arrese (Kapaña).

Eserita: Antonio Larrañaga (Canalejas).

Estepan Plazaola

ileapaindegia

eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02



ETXEBIZITZA

Pisua alokairuan hartu nahi nuke. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Antzuolan pisua erosi-ko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean. ☎ 76 31 35.

Pisu txiki edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

SALDU-EROSI

Musika jotzeko bateria salgai. Egoera onean. Prezioa eztabaida daiteke. ☎ 76 53 55.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

Fondoko hiru eski pare salgai, egoera onean eta merke. Bata 6-8 urteko batentzat, bestea 8-10ekoentzat eta bestea nagusientzat. ☎ 76 32 69.

Oso egoera onean dauden alpinoko bi pare eski salgai. Bat 1.50 m.takoa, eta bestea 1.60 m.takoa. ☎ 76 56 90.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Kanping denda, karro eta guzti, salgai. ☎ 76 58 93 (Miren).

Amnstrad konsola salgai ☎ 76 13 14.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Adria karabana salgai. Berri-berria eta egoera oso onean. ☎ 76 02 57.

Yamaha SR-250-E, SS-AH matrikula, salgai. ☎ 76 52 30.

Ski alpinoko bota pare bat salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72 Alex.

LANA

Edozein motatako lanak egingo nituzke. ☎ 76 58 93.

50 urtetik gorako emakumea behar da andre eda detu bati laguntzeko. ☎ 76 51 62.

Arratsaldean lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. ☎ 76 54 82.

Emakumezko euskalduna behar da haurrak zaintzeko. ☎ 76 02 57.

Neska euskaldun batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 31 28.

Emakumezko euskaldun batek etxetan interina lan egingo luke. ☎ 76 21 33.

Hildakoak

Florentina Arriaran Arozena

otsailaren 14an, 89 urte

Carlota Ariznabarreta Galarraga

otsailaren 16an, 93 urte

Francisco Idigoras Urizar

otsailaren 18an, 80 urte

Regina Briz Fernandez

otsailaren 19an, 80 urte

Jaiotakoak

Kevin Conde Testa

otsailaren 3an

Mikel Jimenez Mujika

otsailaren 15ean

Elena Egino Laborda

otsailaren 18an

AUTOPULLMANS ARABA Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

GESTORIA EGUREN

M. Pilar Eguren Diez

Kolejilatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45



ZUHAITZ EGUNA 1992

OTSAILAK 22 LARUNBATA

Elusu Gainan

- ✓ Autobusa egongo da 10.30etan Beheko Estaziotik.
- ✓ 11etan Zuhaitz landaketa
- ✓ 12etan ogitarteko eta edariak banatuko dira.




BERGARAKO UDALA / HIRIGINTZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA